

**ALBERT FERT JAUNA ETA MANUEL YAÑEZ  
MONTERO JAUNA UNIVERSIDAD DEL PAÍS  
VASCO/EUSKAL HERRIKO  
UNIBERTSITATEKO HONORIS CAUSA  
DOKTORE IZENDATZEKO BILERAKO  
AKTA.**

Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak, 2017ko apirilaren 6an eginiko bileran, unibertsitate honetako Honoris Causa Doktore izendatu zituen Albert Fert jauna eta Manuel Yañez Montero jauna.

Albert Fert izendapena, Julian María Gonzalez Estevez dok. jn. Fisika Aplikatutako katedraduna aitabitxi izan duena, Kimika Zientzien Fakultateak proposatuta egin da, eta aparteko ikerketa lana kudeaketa zientifikoko lan berdingabearekin uztartzeko erakutsi duen gaitasunagatik eman zaio.

Albert Fert irakasleak Fisikako Nobel Saria jaso zuen 2007an erregistro magnetikoei lotutako gailuen iraultza ekarri zuen magnetorresistentzia erraldoiaren efektua (GMR) aurkitzeagatik. Azpimarratu behar da Magnetoerresistentzia erraldoiari buruz argitaratu zuen lehenengo artikulua zientifikoak ("*Giant Magnetoresistance of (001)Fe/(001)Cr Magnetic Superlattices*" *Pshysical Review Letters* aldizkarian argitaratua) 6.000 aipamenetik gora dituela gaur egun. Gainera, efektu horren aurkikuntzak komunitate zientifikoarentzat interesgarrietakoa den nanozientzietako baten jaiotza ekarri zuen, spintronikarena hain zuzen ere.

Albert Fert Doktoreak UPV/EHUko komunitate zientifikoarekin lankidetzan dihardu 2007a baino lehenagotik. Aipatutako lankidetzaren ondorioz, ikertaldeko kideek edo doktoregoko ikasleek bisita edo egonaldiak egiten dituzte Paris-Sub Unibertsitatearen nanomagnetismoaren eta spintronikaren arloko ikerketari buruzko gai zehatzak eztabaidatzeko.

Manuel Yañez Montero jaunaren izendapena, Jesus Ugalde Uribe-Etxebarria dok. jn. Kimika – Fisikako katedraduna aitabitxi izan duena, Kimika Zientzien Fakultateak proposatuta egin da, eta egin duen ibilbide akademiko eta ikerketa ibilbide bikainagatik eman zaio.

**ACTA DE NOMBRAMIENTO DE D. ALBERT FERT  
Y D. MANUEL YAÑEZ MONTERO COMO  
DOCTORES HONORIS CAUSA POR LA  
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL  
HERRIKO UNIBERTSITATEA.**

El Consejo de Gobierno de la Universidad del País Vasco, en sesión celebrada el 6 de abril de 2017, procedió al nombramiento de D. Albert Fert y D. Manuel Yañez Montero como Doctores Honoris Causa por esta Universidad.

El nombramiento de D. Albert Fert, apadrinado por el Catedrático de Física Aplicada, Dr. D. Julian María González Estevez, se ha realizado por iniciativa de la Facultad de Ciencias Químicas y se otorga por su capacidad para aunar una actividad investigadora excepcional con una labor de gestión científica inigualable.

El profesor Albert Fert fue laureado con el Premio Nobel de Física 2007 por el descubrimiento del Efecto de Magnetorresistencia Gigante (GMR) que provocó la revolución en los dispositivos asociados al registro magnético. Se debe de resaltar que el primer artículo científico que publicó sobre GMR ("*Giant Magnetoresistance of (001) Fe/ (001)Cr Magnetic Superlattices*") publicado en *Physical Review Letters* tiene actualmente más de 6.000 citas. Además, el descubrimiento de dicho efecto supuso el nacimiento de una de las nanociencias que suscita un máximo de interés para la comunidad científica como es la Spintrónica.

La colaboración del Doctor Albert Fert con la comunidad científica de la UPV/EHU, se inició con anterioridad a 2007. Esta fructífera colaboración propicia visitas y estancias de miembros del grupo o estudiantes de doctorado a la Universidad Paris Sud para discutir aspectos puntuales de investigación en Nanomagnetismo y Espintrónica.

El nombramiento de D. Manuel Yañez Montero, apadrinado por el Catedrático de Química-Física, Dr. D. Jesus Ugalde Uribe-Etxebarria, se ha realizado por iniciativa también de la Facultad de Ciencias Químicas y se otorga en reconocimiento de su excelente trayectoria académica e investigadora.

Yañez irakaslearen jardura akademikoak kimika fisikaren eta kimika orokorraren alor guztia hartzen du, eta, batez ere, aipatzekoa da Kimika Teorikoaren eta Konputazionalaren unibertsitate arteko doktoregoaren sortzaileetakoa izan zela. 1999an ezarritako ikasketa horiek Kalitate Aipamena lortu zuten, eta estatuko 20 unibertsitate bildu zituen.

Yañez irakaslea kimika teorikoaren eta konputazionalaren arloan prestigio handienetako aldizkari baten editorea da, ***Computational and Theoretical Chemistry***, eta honek nazioarteko komunitatean duen ikuspen nabaria agerian uzten du. Hala, American Chemical Societyk erabaki du zenbaki berezia argitaratzea (***Festschrift issue***) Journal of Physical Chemistryren bertan Yañez irakasleak bere karrera zientifikoan izaniko lorpen zientifikoei buruz.

Yañez irakasleak "Theoretical Chemistry and Computational Modelling" masterra ekarri zuen Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateara eta izenburu bereko doktorego programa dago horren osagarri; ikasketa horiek "Innovative Training Network (ITN)" European Joint Doctorate on TCCM (ITN-EJD-TCCM) aipamena lortu dute Europako Elkartearen. Doktorego horrek Hezkuntza Ministerioaren Bikaintasun aipamena dauka, UPV/EHUko eta Europako ikasle eta ikertzaileen arteko lankidetzaren eta komunikaziorako bide da.

Albert Fert eta Manuel Yañez Montero irakasleen merezimendu hauek direla eta, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak bere titulu akademiko gorena eman nahi izan die, eta Honoris Causa doktore izendatu. Eta nik, Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiak, horren guztiaren fede ematen dut, Donostian, 2017ko urriaren 27an.

La actividad académica del profesor Yañez abarca el espectro de la Química Física y la Química General. Particularmente significativo fue su papel en la creación del Doctorado interuniversitario en Química Teórica y Computacional. El mismo se implantó en 1999, recibió la Mención de Calidad y llegó a agrupar a 20 universidades españolas.

El profesor Yañez es editor de una de las revistas más prestigiosas del área de la química teórica y computacional, *Computational and Theoretical Chemistry*, lo que pone de manifiesto su destacada visibilidad en la comunidad internacional. Tan es así, que la American Chemical Society ha decidido editar un número especial (Festschrift issue) del Journal of Physical Chemistry dedicado a realzar los logros científicos de la fecunda carrera científica del profesor Yañez.

El profesor Yañez incorporó a la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea el Máster Interuniversitario "Theoretical Chemistry and Computational Modelling" al que complementa con el Programa de doctorado con la misma denominación y que ha sido distinguido por la Comunidad Europea como "Innovative Training Network (ITN)" European Joint Doctorate on TCCM (ITN-EJD-TCCM). Este Doctorado está distinguido con la Mención de Excelencia otorgada por el Ministerio de Educación y facilita la colaboración y comunicación de los investigadores y estudiantes de la UPV/EHU con sus homólogos europeos.

Estos merecimientos de los profesores Albert Fert y Manuel Yañez Montero llevaron al Consejo de Gobierno de esta Universidad a concederles su máxima distinción académica, nombrándoles Doctores Honoris Causa, de lo que, en mi condición de Secretario General de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, doy fe en Donostia, a 27 de octubre de 2017.

**IDAZKARI NAGUSIA/EL SECRETARIO GENERAL**  
**Pedro Iriondo Bengoa**